



# Irakasleen arteko harreman pedagogikoak. Heztea, bestearekin jardutea denean



**Ira. 12 - Ira. 13 2024**

**Kod. H17-24**

**Mod.:**

Aurrez aurrekoa

**Edizioa**

2024

**Jarduera mota**

Uda Ikastaroa

**Data**

Ira. 12 - Ira. 13 2024

**Kokalekua**

Miramar Jauregia

**Hizkuntzak**

Euskara

**Balio akademikoa**

20 ordu

**Antolakuntza Batzordea**

Fundación  
BBVA





Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

## Azalpena

Jarduera honen helburu nagusia, heztearen zeregina aurrera eraman behar duten agenteak (irakasleak) haien harremanen inguruan hausnarrean kokatzea da. Hezkuntza gertakizun etiko bat da, besteekin harremanak etengabekoak dira hezkuntzaren eremuan, ikasleekin, familiekin, beste irakasleekin, jangelakoekin...harremanak eta haien izaerak eskolako gainerako prozesuak ulertzeko gakoak dira, berrikuntza prozesuak abiatzeko unean harremanak gakoak dira (harreman txar edota negatiboak dauden testuinguru batean nekez elkartuko dira irakasleak, sareak sortzeko eta bistan da, berrikuntzak sareak eta elkareragiletza behar ditu, harreman txarrak dauden testuinguruetan irakasleak isolatzeko joera du, baita erresistentziak jartzeko aldaketei ere), eskolako giroa eta ongizatea osasuntsua izateko harremanak gakoak dira baita ere, modu berean, harremanen bidez, eskolako kultura eraikitzen da, familiekin, testuingurua eta komunitatearekin eraikitzen ditugun komunikazioen bidez. Harremanak eta bere analisiak, ordea, ikuspegi inklusibo batetik ere itzelezko ekarpena egiten dute; batez ere, harremanak bestearekin sortzen eta eraikitzen ditugun loturak direlako eta beste horiek, nola jaso (irakasle hasi berriak) nola barneratu (zaindu) eta haien garapen profesionala (formazioa, lidergoa...) ulertzeko ezinbestekoak dira.

Harremanen analisiak, irakaslea erdigunean jartzea esan nahi du, eskola eremuan eragile ezinbestekoa, irakatsi ikasi ez baita mugatzen soilik edukien transmisio hutsalera, horiek horrela ezinbesteko gaia da, harremanena. Haien izaera pedagogikoaren inguruan gogoeta egiteak zera esan nahi du, eskolan eraikitzen diren harremanak ez direla pertsonarteko harreman hutsalak, badutelako bestelako intenzionalitate bat, irakasleak eskolan proiektu, egitasmo, metodologia, ikasle talde, bizipen multzo zehatz batekin elkareraginean, lankidetzan aritzeko konpromisoa dauka. Eta hori guztia, klasea emateaz haratago doa eta aurreikusi ezina ere bada neurri batean. Egun eskola testuinguruan, bizikidetzeta eta elkarbizitza kezka iturri diren garaiotan, hausnarketa honek ikuspegi berritzailea eta erakargarria eskaintzen duelakoan gaude.

## Helburuak

Irakasleen arteko harremanen zein haien izaera pedagogikoaren inguruan hausnarketa egitea.

Irakasleen arteko harremanek eta haien konplexutasunak zein interdependentziak duten eraginaren inguruan gogoeta egitea.

Harremanen izaera pedagogikoaren analisisa, irakasleen bizipen eta subjektibitate propiotik garatu eta ulertzea.

Harreman sanoak eta osasuntsuak eraikitzeko eskola testuinguruan aintzat hartu beharreko dimentsioak identifikatu eta horiei aterabideak emateko proposamenak garatzea.

Eskola beste parametro eta gramatika batzuetatik pentsatzeko proposamen eraldaitzaleak pentsatu, irakaslea eta bere zaintza erdigunean jarrita.

## Lankidetzeta



HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

# Programa

## 2024-09-12

08:45 - 09:00 Ikastarora erregistroa

---

09:00 - 10:00 “Una educación con rostro humano: La Pedagogía de la Alteridad”

**Eduardo Romero Sanchez** | Murciako Unibertsitatea - Murtziako Unibertsitateko irakasle Titularra (**Zoom bidez parte hartuko du**)

---

10:00 - 14:30 “Hezkuntza zeregina gertakizun etiko bat bezala. Heztea bestearekin aritzea eta jardutea denean”

**Esti Amenabarro Iraola** | EHU/UPV - EHU/UPVko irakasle doktorea  
**Nere amenabar Perurena** | EHU/UPV - EHU/UPVko irakaslea doktorea

---

## 2024-09-13

09:00 - 14:30 “Harremanak zaintzeko kultura baterantz ikastetxean. Zaindu beharreko dimentsioak”

**Esti Amenabarro Iraola** | EHU/UPV - EHU/UPVko irakasle doktorea  
**Nere amenabar Perurena** | EHU/UPV - EHU/UPVko irakaslea doktorea

---

# Zuzendaritza



## **Esti Amenabarro Iraola**

Hezkuntza, Antropologia eta Filosofia Fakultatea, UPV/EHU

---

Pedagogian doktorea (EHU, 2021), UPV/EHU irakasle-ikertzailea. Gaur egun, Pedagogiako eta Gizarte Hezkuntzako gradu eta Bigarren Hezkuntzako Masterreko irakaslea da. Ikerketa eremuan berriz, bere ikerketa lerro nagusia: hezkuntza inklusiboa eta metodologia inklusiboetan kokatzen da. Modu berean, irakaslearen etengabeko prestakuntza eta formazioan, irakaslearen identitateak eta ezagutzak duen papera aztertzen du baita haien arteko harreman eta kolaborazio sareak, alteritatearen pedagogiaren ikuspegitik. Inklusi ikerketa taldeko kidea da 2020tik. Eta gaixotasun arraroak dituzten haur eta nerabeen hezkuntza eskubidearen inguruan ikertzen du. Modu berean, Vic-eko Unibertsitateko GRAD ikerketa taldearekin lankidetzan, Espainiako Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak sustatuko ikerketa proiektu batean parte hartzen du, irakasleen arteko lankidetzak ikaskuntza kooperatiboan duen garrantzia, zaugarrienak direnen ikasleei laguntzak eta babesak emateko unean, aztertuz (PID2021-128456NB-I00). Azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatuta, berrikuntza sozialeko egitasmoa den Askiak proiektuan parte hartzen du bertan, babespean dauden haur eta nerabe emakumeen zaugarritasunaren inguruko lan bat garatuz.

## **Irakasleak**



### **Nere amenabar Perurena**

---

Pedagogian doktore (UPV/EHU 2013), Irakasle Agregatua Didaktika eta Eskola Antolakuntza sailean. Bere ikerketa arloak hezkuntza teknologikoa eta alfabetizazio digitala dira nagusiki, bereizik nerabeen teknologia erabilera (sare sozialak eta telefono inteligenteak) aztertzeko, bai eta inklusio digitalaren ikertzeko ere. Estatu mailan GRAD (Aniztasunari Arreta Taldea) ikerketa taldean parte hartzen du, Vico Unibertsitateko Katedra Central Kataluniako Unibertsitatean, Zientzia eta Berrikuntzako Ministerioko proiektu baten garapenean, "Lan Kooperatiboa Ikasle Inklusio Gutteragatik Irakasle arteko Lankidetzan" izeneko proiektuan (PID2021-128456NB-I00). Horrez gain UNESCOren Hezkuntza eta Balore Edukien Katedrako kide permanentea da, eta azken urte hauetan ikerketa proiektu desberdinetan parte hartzen du. Gaur egun "Latinoamerikako nerabeek gailu digitalen erabilera arduratsua eta kritikoa hobetzeko esku-hartzea, EHU-L23/22" izeneko proiektuan parte hartzen du.



### **Eduardo Romero Sanchez**

---

# Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2024-05-31 ARTE	2024-09-12 ARTE
<a href="#">Gazte tarifa</a>	25,00 EUR	50,00 EUR
<a href="#">UIK euskaraz</a>	-	71,00 EUR
<a href="#">Matrikula murriztua orokorra</a>	-	61,00 EUR
<a href="#">Matrikula exentzia</a>	-	50,00 EUR
<a href="#">Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide</a>	-	61,00 EUR
<a href="#">Elkar</a>	-	61,00 EUR
<a href="#">Irakasteko ikasten - Eusko Jaurlaritza</a>	-	61,00 EUR
<a href="#">Irakasteko ikasten - Nafarroako Gobernua</a>	-	61,00 EUR

# **Kokalekua**

## **Miramar Jauregia**

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa